

EGUNEKO DIANAK

Eusko Jaurlaritza



Parke Natural izendatu du Eusko Jaurlaritzak Valderejo. Jose Manuel Goinxoa Nekazaritza sailburuak aurreratu zuenez, aurki Urkiolakoa eta Gipuzkoako beste lau eremu ere Parke Natural izango dira. Parkeok «herri inguruaren garapena eta ingurugiroaren kontserbazioa aldi berean elkartuko» dituztela azpimarratu zuen / 10

Kroazia eta Eslovenia



Jugoslavia atzean geratu zaigu, Kroazia eta Esloveniaren independentziak onartu bait dituzte Europako Komunitateak eta komunitatetik kanpoko beste estatu europarrek. Esloveniak independente izan da kasik. Joan zen uztailetik aurrera. Kroaziak, bere ametsa gauzatu aurretik, 30.000 hildako utzi ditu / 17

Txibisto dantzalekua



Bergarako Txibisto dantzaleku eta kontzertu aretoak atxiki ditu behin betiko. Orain dela zazpi urtez geroztik hainbat eta hainbat kontzertu antolatu dituen sala honek lan handia egin du Euskal Herriko kontzertu azpiegitura sendotzen. Arazo ekonomikoei ezin eutsirik, hala ere, Bergaraldekoek amaiera eman behar izan diote proiektu interesgarri horri / 26

Aljeriako Estatu Kontseilu Gorena



Aljeriako Estatu Kontseilu Gorenak Chadli Benjedid lehendakariak utzitako lekua hartu eta hauteskundeak bi urtez atzeratzea erabaki du. Osatu berria den Estatu Kontseiluak kritika ugari jaso ditu. Inolako legitimaterik ez duela eta lider historiko horiek Aljeriak jasaten dituen arazoak konpontzeko gai ez direla diote kritikek: «Estatu kolpea ematera ausartu direnez, edozer gauza egiteko gai dira dagoeneko» / 18

Beatriz Elizalde: «Gure ihauteria festa euskaldun eta herrikoia da»

JEAN MIXEL DIRASSAR / ZIBURU

«Donibane Lohizune eta Ziburuko ihauteriak arrakasta handia du, herritarrentzat beste herritar batzuek antolatua bait da» adierazi digu Beatriz Elizalde, Donibane-Ziburuko Ihauteri elkartearen ordezkaria. Ihauteri elkarte orain dela hamahiru urte sortu zen. Garai horretan euskal kulturaren egoera orain baino larriagoa zen. Beraz horrelako euskal ohitura berpiztea zaila izan zen.

Emeki-emeki, festa honen programa aberastu egin zen eta gertakari berri batzuk agertu dira ihauterietan. «Gure aldetik, orain dela bi urte Sorginen Gaua sortu genuen Donibane eta Ziburuko historia sakontzeko. Hori egin dugu batez ere hemen deitzen zituzten sorginak ospatzeko, ez bait ziren deabruaren emazteak, inkisidoreek aipatzen zuten moduan. Bakarrik natura eta bere sekretuetara hurbiltzen ziren», azaldu du Elizalde.

Berritasunei dagokionez, joan zen urtean, Ihauteri elkarteak honako hau sartu zuen bere egitarauan: Hartzaren Ateraldia. «Ikerlan batzuen ondoren, jakin genuen Lapurdiko kaxkarotak —gizartetik kanpo zen jendea Lapurdiko herrietan bereziki— mendietara joaten zirela hartzaren bila, otsailean. Dударik gabe neguaren bururatzearekin lotua zen ohitura hori, udaberria eta naturaren biziaren berpiztearekin bate-



SOSLAIA

Euskaldunberri, ihauteri berri

Beatriz Elizalde, bere hogeitabi urtekin, berriki sartu da euskal kultur munduan. Hala ere, Donibane eta Ziburuko euskal gaztetaz bera arduratzen da. Aita azkaindarra eta ama itsasuarra baditu ere, Beatrizek ez du koskortu arte euskara jakin. Euskara ikasi eta gure hizkuntzan mintzatzeko gogo bazuen, ordea, eta AEKren bitartez euskaldunberri da. Ondoren, Ihauteri elkartearen sartu zen. Gaur egun, elkartearen permanentea da eta beste kideekin batera, lan bikaina egiten du.

ra». Azken urte honetan elkarreko kideak kasik astero bildu dira festa antolatzeko. «Hasieran, biltzen gara ihauteriak ahal bezain on eta ederrak osatzeko. Ondoren, soinulari, dantzari, antzerkilari, kantari eta abarrek jartzen gara harremanetan, baina zailena da finantzamendua iturriak atzematea» esan du Elizalde. Elkartearen finantzamenduari buruz, eratu ahal da erdi autofinantzamendua herri laguntzaren bitartez bereziki. Beste erdia, Donibane-Udala, Euskal Kultur Erakunde eta Ziburuko Udalak hartzen dute beregain. Hegoaldeko hirietako ihauterietan alderatuz, oso diru gutxi gastatzen da Donibane eta Ziburun. Azpimarra daiteke Ihauteri elkarteak, lau festa egun finantzatzeko 90.000 libera (1,6 milioi pezeta) dituela bakarrik.

Elizalderen hitzetan, «abertzaleen igaite azkarra azken herri hauteskundeetan izan zen dudarik gabe ondorio on bat dirulaguntza lortzeko. Ildo berean Donibane Lohizuneri dagokionez, Udalak bere funtzionamendu aurrekontutik %1 euskal kulturarentzat banatzen du eta horren barneko laguntza dugu». Gaur egun lokal baten bila dabilta. Elkarrekin aurretik landatu zituen haziak handitu eta loratzen ari dira. «Dinamika dutenen laguntzari esker, beren denbora, gogoia eta bihotza emanda ihauteri bero-beroa eskaintzeko».


LERRA GUTXITAN

Juantxu Rodriguezen heriotza argitzea eskatu du EEK

Juantxu Rodriguez argazkilariren heriotzean Estatu Batuek izan ditzaketen erantzukizuna argitzea eskatu dio Europako Politikarako Elkarkidetzari Batzordeari, Juan Maria Bandres Euskadiko Ezkerrako lehendakariak. Juantxu Rodriguez iparramerikar soldaduek hil zuten EEBBak Panaman sartu zirenean. EEKko iturrien ustez, «Rodriguez legezkanpoko baldintzetan hil zuten eta baldintza horiek ez dute hanka sartzearen ardura kanpoan uzten».

Eskuak erre dizkie ilobei hamar duro lapurtu zituztelako

Iloba gazteek 50 pezeta lapurtu zizkiotela jakitean, sumindu egin zen Euripides Blanco dominikarra eta eskuak erre zizkien, sutan zegoen makila batekin. Gaztetxoek sei, lau eta bi urte dituzte. Medikuen ustez, kalte psikikoa fisikoa baino larriagoa izango da umeentzat.



ESKUA txertatu diote Andres Garcia gazteari Burgoseko Yague ospitalean, ezbeharrean haizkoraz moztu zuelako. Lehen aldia da Estatu espainiarrean esku txertaketa bat egiten dutena. Berau burutu duen kirurgia plastikoko taldeak interbentzioa arrakastatsua izan dela azpimarratu du.

Muturrekoak jaso ditu autoa bigarren iladan uzteagatik

Legoretako (Gipuzkoa) bizilagun bat atxilotu zuen atzo Ertzaintzak, automobila bigarren iladan utzi zuen banatzaileari aurpegia kolpatu eta belarrarian horzka egin ziolako. Altzari batzuk deskargatu behar zituela eta, banatzaileak bigarren iladan utzi zuen bere furgoneta. Pedro R.B. izeneko legorretarra bere kotxea hartzera joan zen instant haretan bertan baina furgonetak bidea oztopatzen ziola ikusteak, eztabaidan hasi zen banatzailearekin. Hitzekin ezer lortu ez eta eraso egin zion ondoren. Jarraian kotxea martxan jarri eta furgonetaren aurka jo zuen aurrez aurre, propio.

Canariar Irletara EGUNKARIAREN eskutik

637

Honako zenbakia da EGUNKARIAREN bonoetako zozketan saridun irten dena. Zenbaki horren jabeak Canarietarako bidaiari irabazi du. Berau otsailaren 16a baino lehenago agertzen ez bada, honako zenbakiaren jabeak eskuratuko du saria: **24.421**. Era berean, bigarren zenbakiaren jabea ez bada hamabost egunen epean agertzen, hirugarren zenbaki bati egokituko zaio bidaiari: **7.101** zenbakiari, alegia.

ONCE

ASTELEHENA 71.940

ASTEARTEA 58.658

OSTEGUNA

KUPOITZARRA

OSTIRALA

ASTEAZKENA

72.943